

Astekaria

BARREN elgoi

Bizitzeko gogoa ez zaigulako jubilatatu



MAPFRE

ASEGURU ETXEA

94.4« ~ *cifut* ~
levt ~ *mfeed*

San Frantzisko 40 behe.a.z. 74 05 82 - 20870 ELGO1BAR



MENDAROKO UDALAK
GABON JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON BAT
OPA DIZKIZUE
HERRITAR GUE101

elgoiBARREN

Nafarroa enparantza 2
74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

Zuzendaria:

Alberto Agirreazoldegi.

Hizkuntza ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PuBuziTATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRATIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Jon Barandtaron, Arriz Etxaniz, Felix Eixeberria, Itziar Fernandez, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ine Garagarza, Goizon Garate, Joseba Gorosabel, Xabier Garriti, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, KOKOE, Edume Korta, Enrike IarraPiaga, Imanol Larratiaga, Nerea Lodoso, Jesus Mari Makazaga, Iñaki Odriozola, Jose Inazio Sarasua, Olga Unzilla, Miryam Villasank, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanoi Larrailaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñafij

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GoRoAILua: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen eddizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



kutxa fundszloa
ihmidacian katza

ZENBAT BURU



Eskuina eta ezkerra (Iñaki)

ESaten dit nire lagun kritikoak, eta pozik sentitu naiz gutxienez norbaitek artikulotxo hauek irakurtzen dituela jakitean, bada, dio, orain arte idatzitakoetan, eskuindarrak aipatzerakoan, gure herrian ditugun zenbait pertsonaren jokaeraren irudia, nolabait atzeman dudala.

Eta ez zait iruditzen horrela denik. Hau da, nik uste dut bereizketa nabaria dagoela Eskuindarra izatek eta Jauntxo izatera. Lehenengoa ideologia da, bestea, bigarrena alegia, jarrera delarik. Eskuindarra izan daiteke, beraz, eta liberal deritzonak horrela izan beharko luke, pentsamendu eta adierazpen askatasun osoan hiritarren garapena nahiko lukeena. Hori bai, merkatu ekonomia askea eta baldintzagabea zalantzan jan'i gabe, noski.

Eskuindar horren jarrera ez da Jauntxoarena, izatez aurkakoa baizik. Jauntxo izan daiteke, berriz, ez Eskuindarra, baina gure gizartean ez daukagu eredu honen berri eta denok gogoan ditugun atzerriko ereduak ere historietako liburueta pasa dira azken aldian, zorionez.

Ni, beste idatzietan Eskuindar Jauntxoei buruz bakarrik aritu nintzen eta, orainoan ere, jadanik, bukatzeko hari horri jarraiki noa.

Eskuindar garbiena ez bezala, hauen nahia, ia ia obsesioa, beste guztiak beraien modura pentsatu eta jokatzeko da. Hauek, benetako liberalak ez bezala, kultura-eredu bakan'a onartzen dute, sinismen eta jainko mota bat, moral mota bat, jakintza mota bat eta, orokorrean munduarekiko ikuspuntu mota bakarra. Hori "egia" da eta horren inguruan dabilena "Ongiaren" hurbil dabil (Orain 2.500 urte, Platon, Greziar Filoso Eskuinda-

rrak, berdina zioen). Beste guztiak, berriz, bidegalduak eta gaizkiaren inguruan.


Eta, hauek ere, liberal hutsak ez bezala, beraien ereduarekin bat ez datozenak baztertu egin behar direla uste dute; hobeto esanda, ziur daude.

Baztertu ala BERGIZARTERATU. Hara hor Izen Majikoa, orain modan jarri digutena. Esanahi bakarra duena, gainera. Eskuindarrek arlo guztietan bergizarteratu nahi dituzte beste guztiak: esaterako, eta joan zen egunean aldizkari honetanxe ikusi nuen bezala, Euskal Presoak, Ideologia utopikoak eta askatzaileak ahaztaraziz eta belaunikaturik atera daitezten..., baina beste presoak ere bai, besteen propietate pribatua gehiago ikutu ez dezaten, drogazaleek alkohola bakarrik har dezaten... Baita edozein hiritar ere, harreman sentimentaletan, sexuzkoetan, gizabanakoen elkarbizitzetan ohizko eredura lot dadin, lan munduan kompetitibitate eta produktibitate lot dadin, gizakiaren burua, Habermas filosofoak dion Arrazoi tekniko-instrumentalera, makina eta formulen ebazera lot dadin..., azken batez, denak goitik ernango diguten pentsamendu uniforme eta bateratua izanez gero, "Gizarteratu obedienteak" izenez gero, eta arrazoi dute, arazorik ez.

Orain Gabonak direla eta, joan zen egunean, nire umearekin, jostailu dendara joan nintzenez, hainbeste eta hainbeste jostailu ikusten nituen, aurtan ere, Gure Olentzero gizartea bere zakuan ekarri beharko dituenak. Bapatean eton'i zitzaidan burura: OLENTZERO ere, Eskuinak badu dena irensteko joera, BERGIZARTERATU egin digute. AGUR.

Iñaki Odriozola

*Eusko Jaurlaritzak
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



"Duela hilabete larunbatean atletismo frogak antolatu ziren Mintxetan. Honen ondorioz, Eskolarteko Kirolen partiduak astean zehar jokatu behar izan zituzten. Antolatzaileei ohar hau helerazi nahi nieke: kontuan izan ezazue hurrek astean zehar bestela ere zeregin dexente izaten dituztela eta bat gehiago atarramendu handia dela".

Aurreko aleko kexari erantzunez zera adierazi nahi du elgoibartar batek: "Euskaraz ez jakin arren oso gustura gaude Mintxetako bulegoan dagoen neska horrekin. Beste leku publiko batzuetan hain jatorrak ez diren pertsonak daude, euskaraz hitz egin arren".

OHARRA:

86. alean txakurren identifikaziorako mikrotxipari buruzko artikuluko hainbat gauza argitu behar dira:

- 1- Mikrotxipa jartzeak 1800 pta balio du.
- 2- Erroldan baja ematea doan da.
- 3- Txakurraren titularitatea aldatzeak, jabez aldatzeak, 1.000 ptako kostua dauka.
- 4- Eibarko albaitariak: Andoni Gisasola (12 19 86) Julen Arano eta M.Jesus Blanco (12 74 15).

Bosnia bizirik

Lehendabizi eskerrak eman nahi dizkizuegu elgoibartar guztioi zuen jarrera oso ona izan baitzen burutu genuen hil haserako astebukaerako kuestazioan. Zuei esker 150.000 pta inguru eta zapata pare dexente lortu genituen Bosniara bidaltzeko. Momentuz diru hau Donostiako SOS Balkanes erakundera bidali dugu, eta han zapata pare ugari erosiko dituzte Bosniara zuzenean bidaltzeko.

Berriz ere esker mila elgoibartar guztioi, zuei esker aurtengo negua hobeto igaro ahal izango baitute bosniar askok.

Elgoibarko SOS Balkanes

herria, gure burujabetza, gure agintariak, gure lantegiak, gure ohitura zaharrak maitatzen bizitzeko aukera. Utzi diezaiogun, bada, gure anaiarteko -borrokari. Burujabetza badaukagu, Eusko Jaurlaritzak badaukagu, beraz, ez dira bidezkoak ez eta arrazoizkoak ere HBren eskakizunak. Ez dute oinarririk, zuhertasunaren aitzakiaren menpe, borroka bitartez ameskeria da independentzia eskatzea.

Euskal Herri aberatsa, erresumarik behartsuenetarikoa bihurtu zaigu. Elkarri lagundu behar diogu, pakeak egin behar ditugu, espetxeratuak herriratu behar ditugu. Inork uler ezin dezakeen borroka zentzugabea daramagu herrian. Euskaldunon artean ez daukagu ez garailerik ez eta menperaturik ere. Anaiarteko giroa sortu behar dugu, elkarri maitasuna emanaz lagundu, Euskal Herriko lantegiak emankor bihurtu Europa mailan lehia dezaten. Pakea izan behar da gure helburua.

Gizarte, kultura, hizkuntza eta politika aniztasunaren barruan, denok herrimindu eta benetako batasuna lortu behar dugu, "Jainkoa eta Lege Zaharrak" helburua jarraituz. Guztiari paso eginez ezinezkoa da ahaidetasun zorionsu edota Euskal Herri atsegin bat lortzea.

Juan Martin Etxeberria

Pakea hurbil Euskal Herrian?

Gure gotzaiak eman digun mezuak dioen bezala, "Pakea, maitasunaren, apaltasunaren, barkamenaren, elkarri begirunea izanez eta amore emanez, egiaren eta arrazoiaren bidez lor daiteke". Arrokeria kaskarra anaion artean borrokan aritzea. Euskal Herriak, gaur eta beti, osasuna, lana eta pakea nahi ditu. Euskaldunok badugu Eusko Jaurlaritzak, gure

TARRIGORRIGIDIKOERRO TABERRI TARRAK



BARREN Sariak 94



Gabon egun bezperan, **BARRENe**k 2. urtebetetzea egiten du. Ospatzeko, **BARREN** sarien bigarren edizioa antolatu da. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. **BARRENe**n egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. **BARREN** sariak astekarian kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi badizkiegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik, urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.

*BARRENe irakurle guzti
guztiak gonbidatuak
zaudete, ZATOZTE!!*

Eguna: Abenduak 23

Ordua: Arratsaldeko 7etan.

Tokia: Herriko Antzokian.

Sari banaketaren ondoren **Antak** 19 **duren kantaldia** izango da.



Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tinoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

- | | |
|-------------------|-----------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Otorrinolaringologia |
| 2- Kardiologia | 10- Pediatria |
| 3- Zirugia | 11- Sikiatria |
| 4- Dermatologia | 12- Radiologia |
| 5- Ginekologia | 13- Traumatologia |
| 6- Laborategia | 14- Urologia |
| 7- Barne medizina | 15- Dietetika eta nutrizioa |
| 8- Ortodontzia | 16- Foniatria medikoa |

JF

ROKE TABEVI)1

Goizeko 9etatik irekita

**EGUNEROKO
MENUAK**

- ▶ Despedidak
- ▶ Urtebetetzeak
- ▶ Kazuelatxoak
- ▶ Ogitartekoak
- ▶ Etab...

9ffitioa44!



ERRETAINDI AUZUA, 1. ELGOIBAR 74 57 00



ste honetako erretratua **Maite Vallejo** laga digu. Berau Mendaroko Garagartza Plazan 1954. urtearen bueltan ateratakoa

ofifida.

Maitek esan digunez San Agustinen urteurrenako egunean atera zuten eta poxpolinez jantzitako neskak Mendaroko monjetan ikasten zutenak dira. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak. Ezkerretik hasita, goitik behera:

Lehen ilaran: **Patxiko Etxeberria (1), Maite**

Vallejo (euskaldantzako irakaslea), Balbina Vives, Maria Dolores Landa, Mari Kontxi Ziaran, Mari Mertxe Mugerza eta Mari Paz Gabilondo (euskaldantzako irakaslea).

Bigarren ilaran: **Itziar Garcia, Milagros Landa, Belen Ansola, Maria Victoria Bergara, Maria Begoria Andonegi eta Silvino Gabilondo (t).**

Makurtuta: **Mari Sol Gurrutxaga, Mari Asun Zabaleta, Marisabel Lazarobaster, Margarita Lazkano eta Mari Del Iglesias.**

Cordon, Vilarchao, c. .
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 74 05 70



11111 1 MOOM

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

KEMEN  **Belardencia**

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 **311**

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Jubilatuekin beF!Plitim

Aspertzeko astirik ez dute gure jubilatuek. Pasiatu, gimnasiara joan, etxeko lanak egin, lagunekin berriketaldibat izan, periodikua irakurri edota hizkuntzak ikasi dira egunean zehar egiten dituzten zenbait gauza, eta beste gauza mordoa egiteko astirik ez zaie geratzen. Osasuna edukitzea besterik ez dute eskatzen. Horrefako baieztapenak entzun ahal izan ziren hilaren lehen Elgoibarko Izarrak antolatutako "Jubilatuekin berbetan" izenburuko mahainguruan. Sei hizlari, Ramon Maiztegi, Juanito Gorostiza, Itziar Konde, Rosarlo Garate, Jullan Iriondo eta Felisa Bergaretxe eta moderatzaile bat, Luis Mari Iriondo. Beraien edadeko arazoez hitz egiteko parada izan zuten jubilatuek, eta hango entzule edadetuek eta gaztegoek ere, gonbidatuek esandakoetatik ikasteko aukera. Hona hemen bertan esandakoen artetik, interesgarrienak iruditu zaizkigun pasarteak:



Luis MARI IRIONDO: Hasteko, azaldu nola pasatzen duzuen eguna.

RAMON MAIZTEGI: 9etan jaiki, donatiekin edo lagunekin egon, pasiatu lasai, telebixio piskat ikusi... gauza guztiak eitxeko astirik gabe.

JUANITO GoRosnZA: Jubilauan direktiban sartu naizanetik, hantxe pasatzen dou eguneko ordu asko. ,Gimnasian ere hasitxa gaude ta gabian telebixio piskat ikusi.

ITZIAR KONDE: Etxeko lanak ein,bazkarixa preparau eta ordu beteko pasiarria eitxen dot. Bazkaldu eta gero, lokumuxa bat egin eta berriz, pasiatzera. Eskulanak eitxeko zaletasuna ere badaukat.

ROSARIO GARATE: 7etan jaiki, gosalduta eta, gero mezatara Jaunari eskerrak ematera. Egunkaria irakurtzen dot, eta

pasiara juten gera Ibartolara edo Berasetara. Astian hiru aldiz gimnasia eukitzen dogu eta giro zoragarria dao. Eguna motza geratzen jata.

JULIAN IRIONDO: Jaiki eta dendara juten naiz, jubilaute nao baina ezin lana laga. Periodikua irakurri hori bai, musikia eitxia ere gustatzen jata baina ez dot danerako astirik eukitzen.

FELISA BERGARETXE: Goizeko 8etarako babarrun gorrixak edo lentejak jarri. Semiari laguntzera

tabernara juten naiz ta hango hazkarixa ipiñi ta gero, etxera. Etxeko lanak ein ta ahal doten bitxarte guztietan pianua jo, Habanerak, "Mi linda Lola" ta holakuak. Osasuna besterik ez dotsat eskatzen Jainkuari.

Luis MARI: Gure arteko arazoei helduz, nahikoa al daukazue jasotzen duzuen pentsioarekin?

RAMON: Nik ikusten dot jubilaute berriak nahiko ondo daoze. Pena haundixa ematen diatenak jubilaute zarrak dia, hamar



ITZIAR KONDE:

"Alarguna eta jubilaute zarrak dia diru arazoak dauka".



FELISA ERGARETXE:

"Osasuna ta pakia, ta patrikeria betia, ta lana gaztientzat. Ez dao gauza hoberik".

mila duro ere ez dabenak kobratzen.

ITZIAR: Jubilau zarrak eta alargunak. Nik ikusten dot emakume alargunak oso gazki geratzen diala.

FELISA: Lan barik daozenak, gaztiak, nahiko nuke jubilazio baju hori eurentzat egongo bazan.

LUIS MARI: **Bakardadea sentitu izan duzue inolz?**


RAMON: Nik ez daukat bakardadian pentsatzeko astirik. Bakardadia sentitzen dabenak inizatiba faltagatik dala uste dot. Nik ezagutzen dot 75 urtekin piano karrera ikasten hasi danik eta Elgoibarren ere, frantsesa eta inglesa ikasten daozenak edo kua-druak pintatzen hasi dianak. Inoiz ez da berandu zeozer ikasteko.

JUANITO: Elgoibarren gimnasia pasiba daukagu, eta aktiboa ere bai. Jakinian euki biharko leukie hau jubilauek.

ITZIAR: Ni bakarrik bizi naiz eta ez naiz bakarrik sentitzen. Gauza asko ein leikez, erresidentziara

jun gaixuak bisitatzer... Bakarrik sentitxu ezker, kalera jun eta edozeinekin berba eixia onena.

RosARio: Jende gaztiakin bizi naiz eta norbera ere gaztetu eitzen da. Eta



RAMON MAIZTEGI:

"Bakardadia sentitzen dabenak inizatiba faltagatik da".

lagunak, gauzarik ederrena dia.

JULIAN: Familixa haundixan bizi geranak ez gera bakarrik sentitzen baina tendentzia daukanak koplejo hori eukiko dau betidanik, ez dauka jubila-zivakin zerikusirik.

FELISA: Ez daukat bakardadian pentsatzeko astirik. Gustauko jatan kruzero bat eixia edo Parisera jutia baina...

Lus **MARI:** Osasunaren

kontua nola ikusten dozue?

RAMON: Ni ezin naiz keju, hori ez da pagatzen diruakin.

JUANITO: Automobi I zarra bezela gera. Nik uste dot euskaldunak medikua-nera juateko oso bildurti-xak gerala.

JULIAN: "Osasuna munduko ondasuna" esaten da, eta arrazoiakin.

FELISA: Medikura? Azkena! Min piskat bat dauanian igurtzi eta kitto! Osasuna ta pakia, ta patrikeria betia! Ez dao gauza

gabe ez dot lorik eitzen.

JULIAN: Guk problemarik ez euki arren, normalena pastilla hartzia da. LUIS MARI: **Zuen arnetsak zeintzu dira, zein da zuen bizi-poza?**

JuANTro: Familixia ta herrixa baloratzia. Zelan deportia gustatzen jatan ba, EIgoibarrek zer ein daban jakin ta, gainontzian mahaixan disfrutatzten dou guk, ondo jaten eta hobeto edaten.

ITZIAR: Osasuna euki, bijaieren bat ein...

JULIAN: Hiru gauza ahalegindu naiz ni eitzen nere bizitzan: familixia aurrera atera, herrixari zeozer eman eta lagunak zaindu. Gainontzian koruan kantau, gitarria jo, ta Realak irabazten dabanian poztu, ta galtzen dabanian...

Lus **MARI:** **Biajetan, Benidorm, Canarias... esperientziarik daukazu?**

RAMON: Ni Zestuara jutun naiz osasunaren bentajarako. Benidorm-en

hoberik.

LUIS MARI: **Lo egiteko arazorik?**

FELISA: Nik pastilarik



JUANITO GOROSTIZA:

"Jakin'an euki biharko leukie E goibarko jubilauek gimnasia pasiba hor dauala"

Met 7/7 ~ 7 San Frantzisko 26. IT 74 25 35

Gabonetako eskaintza berezia

Urrezko bi erloiu zozketatuko ditugu!

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara. Zozketa 1 995eko urtarrilaren 5an izango da dendan.

*Zatoz!
Zure zain
gaude.*



ROSARIO GARATE:
"Elbar entzako erraztasunik ez dao, ez kalia ez inon."

ambiente oso ona egoten da, 200.000 turista egoten dia. Dantzan ere ikusten ditut ni baino zaharrauk. Poztu eitzen nau horrek.

JUANITO: Merezki du ertetziak ta ezagutzen ez dozuna ikustiak. Baina galdera bat eingo naban nik: Zer dao Benidorren Elgoibarren ez daona? Juten dianian elgoibartarrak hara "han bai, han bai!" esaten dabe.

ITZIAR: Biajiekkin aldatu eitzen dozu eguneroko bizimodua. Lagunak eitzen dia ta harremanak landu.

JUANITO: JubilaUetarl ipini dou Gelatxo orkestia martxan, ta badaoz hemen dantzarik eitzen ez dabena eta Benidorren bai.

Luis Mari: Erljioa garrantzitsua al da?

ITZIAR: Neretzako laguntza bat da, eguneroko bizitzan aurrera egiteko.

ROSARIO: Fedia lagun hurkuari barkatzia ta maiztatzia da.

Luis Mari: Jubilatzeke preparau biharra dau?

JULIAN: Jubilaziva konturatu gabe etortzen da. Ez dogu preparazio bat euki, asumidu ein dou besterik gabe.

ITZIAR: Jubilatzean, denbora libre mordua daukazu derrepente. Norberari gustatzen jakozen gauzak eitzeke aukeria egoten da, musikia, pinturia... Askotan hainbeste gauzatarra apuntau ta gero denera juteko astirik ez!

LUIS MARI: Zelan ikusten dozue Zaharren Biltokia?

RAMON: Asko kritikatu zan King-Kongeko etxia ein zanian, baina hari eskerrak daukagu gaur jubilatuen egoitza. Kanpotarrak esan diate neri txundituta geratzen diala gure jubilauakin.

JUANITO: Leku ona dala uste dot, giro politxa egoten da baina jendiak soziedadietara juteko tendentzia dauka.

ITZIAR: Ni ez naiz juten baina oso ondo dauala uste dot. Gauza bat falta da nere ustez, karta jokua gustatzen ez jakuenentzat, adibidez gela bat jartzia eskulanak eitzeke.

JUANITO: Kursilluak badaukaguz ta asmuak ere

haundixak, baina diru asko kostatzen dau horrek.

Luis MARI: Eta Erresidentzia?

JULIAN: Nere ustez ospital hitza kendu ein bihar da, psikologikoki karga haundixa daukalako. Egoitza da hitza.


ITZIAR: Oso ondo dao eta gainera jendiari entzuten jako horra juteko prest dauala. Alargunak edo ezkondu ez diazenak ez dia bestiak bezain triste juten egoitzara.

LUIS MARI: Hutsunerik ikusten al duzue Elgoibarren?

ROSARIO: Elbarriuentzako erraztasunik ez daola, ez kalietan, ez Zaharren Biltokian, inon ez. Pasiatzeko lekurik ere ez dauke.



JULIAN IRIONDO:
"Zahartzaruan jenixua dominatzen ikasten da, tolerantzia gehitxu."



MUEBA lurolak

3a

Antonio Arrillaga 14 74 01 80

Gabon jaiarako opariak egiteko materiaie eta arroparik onenak daukagu. ASTORE kirol erxearen denda baimendua izanik, Errealaren kamiseta, txandal eta poltsa ofizialak ditugu. Etzazu aukera paregabe hau galdu. Zain gaituzui



DEBA KALEA 1 2

e Preformak, gl. 2.8T7E0E7442 2 1

ERREF • RMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

**I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G**

FADEK

SOLARIUM

Inexbaa ie4-

4 n7,25' le


Erosi al duzu Gabo leiake oteriarik?



ANTONIA BASTIAS

37 urte, etxeoandrea


Bai, piska bat urtero jokatzen dugu, 22an eta errege egunekoan. Gainontzean urte osoan zehar Primitiva-n jokatzen dugu. Sekula ez zaigu ezer tokatu.



CESAI110 CARBALLO

42 urte, saltzailea


Bai, Gabonetan bakarrik eta reintegrua tokatuz gero, erregetan berriz. Asko ez dut jokatzen eta jokatutakoa etxekoan eta lagunaren artean banatzen dugu.



GABRIEL RUIZ

63 urte, jubilatua

Urtero. Aurten 18.000 pta jokatu ditut dagoeneko. Toki ezberdinetan erosten dut, Valentzian, Zaragozan, Bartzelonan... Ohitura daukat Bilboko Azkaretan erosteko.



ANTONIO PEDRON

63 urte, espezialista

Bai, urtero. Ilusioa ematen du ea zerbait tokatzen den lasaiago bizi ahal izateko. Bizpahiru dezimo jokatzen ditut Gabonetan. Ez zait sekula tokatu.



BEATRIZ ANSOLA

21 urte, ikaslea

Nik ez, sekula ez die tiratu holako jokuek. Etxian aitzak jokatzen dau piskat orain, Gabonetan. Tokatu inoiz ez, reintegrua igual.



ARANTXA BARRENETXEA

30 urte, etxeko langilea


Ez, ez daukat tokatuko zaidan federik. Etxian jokatzen dabe baina Gabonetan bakarrik. 22an tokatzen bada gero erregetan berriro jokatzen dogu.

ASESORIA, GWIDS

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

11,44,1 ~ 44,U4Uka44,

ki"~.411,

Ea,:/pvt 4~-tp,44,44.

Urasandl 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



PINTURAN
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. 75. 74 36 52 - 74 27 89

KONRNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

111 Morkaikon Jaiotza ipintzeko irteera

Urtero bezala, Morkaikora irteera egingo da jaiotza ipintzeko hilaren 18an. Joan nahi duten guztiak Plaza Handian elkartuko dira goizeko 9etan.

■ Ipuin kontalariak Liburutegian

Elgoibarko Udal Liburutegiak 94-95 ikasturteari begira irakurketa bultzatzeko antolatu duen kanpainaren barruan, *Ika* taldearen eskutik, ipuin kontakizuna izango da hilaren 20an, arratsaldeko 5etatik aurrera. Ildo beretik, Gabonetako oporretan, Taupada taldeak "Mamu maItzurak" izeneko lanarekin jolas dramatikoak egingo ditu 5 urtetik 9ra bitarteko haurrekin. Saioa hilaren 28an izango da goizeko 11etan hasita.

■ Gabonetako tiro pitxon txapelketa

"La Union" elkarteak herritar eta bazkideentzako tiro pitxon txapelketa antolatu du hilaren 17an. Kaiola modalitateko tiro txapelketa hau Albitxurin izango da, goizez 11etatik lera, eta arratsaldez 3etatik 6etara bitartean. Izena-ematearen zenbatekoa 3.500 ptakoa da txoriak barne. Sailkapeneko lehen hamaika ehizatariak saria jasoko dute.

■ Amets Beroak dantza saioa Herriko Antzokian

Gaur, hilak 16, *Arteszena* Gipuzkoako Teatro Publikoaren "Amets Beroak" dantza saioa taularatuko da Heniko Antzokian gaueko 22,15etatik aurrera. Dantza garaikidearen erakusle da ikuskizun hau, hiru koreograforen lanaren bidez. Hiru zatiz osatua dago. Bigarren dantza saioa Josu Mujika elgoibartarraren zuzendaritzapekoa da. Sarreraren zenbateko 350 ptakoa da.

Jaiotzen lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna igandea izango da



Parrokiko Kristau Ikasbideak Gabonetako jaiotzen lehiaketa antolatu du. Lehiaketan parte hartzeko taldeka zein banaka egindako jaiotzak aurkeztu ahal izango dira. Jaiotzak buztinez, plastilinez zein beste edozein materialez egindakoak izan daitezke, baina eskulanak beti ere. Ez dira marrazkiak eta kartulinak onartuko. Aurten eliza obretan dagoenez hilaren 18a baino lehen Udalatxeko arkupeetara era-

man beharko dira lanak. Bezperan, goizeko 11etatik letara bitartean partehartzaileak izena ematera pasa beharko dira Ubitarteko lokaletik. Orijinalitatea eta estetika kontuan hartuko diren arren, Eguberriaren zentzua adierazita dagoen moduari berebiziko garrantzia emango zaio. Lehen bost sarituek garaikurra eta oparia izango dute eta lan guztiak Errosario kaleko 3an egongo dira ikusgai.



Jose Kruzelegi eta Eusebi Arrieta ditugu argazkian urrezko eztaiak egin zituzten egunean, hilaren 8an, hain zuzen. Azpeitiko Olatzeko ermitan elizkizuna izan zuten, eta gero Loiolan, sendi guztiaz ingurutatuta, bazkaria, opari banaketa eta eztaitarta. Josek eta Eusebik emozio handiz jaso zituzten bidalitako zorionak baina bereziki eskertu nahi dute Klub Deportibokoek bidalitako zorion-agurra.

Lilbilatuaren Astea ospatzen dira Zaharren Biltokian



Zaharren Biltokia Jublatuaren Astea ospatzen ari da egunotan. Aste osoan zehar kultur ekitaldi mordoak burutu dituzte, hitzaldiak, mahaiko jokua, bazkariak, kontzertuak... Asteazkenean aurten urrezko eztaiak egin dituztenei (argazkian) eta 80 urtetik gorakoei omenaldia egin zitzaion, ostegunean Gabonetako ehun otarra zozketa ziren eta gaur, ostirala, atzatsaldeko 6etatik aurrera txokolatada izango dute, Duo Plaentxiren, Dakinta txiste kontalariaren eta

Roketxu magoaren partehartzearekin. Ospakizunek bihar, larunbata, izango dute jarraipena. Arratsaldeko 4etan mahaiko jokuen finalak jokatu dira, jarraian kinar aritzeko aukera izango dute kinazaleek eta eguna bukatzeko Gelatxorekin dantzaldia. Igandean, hilak 18, eguerdiko 12,30etan meza izango dute parrokiaren hildako jubilatuen omenez. Arratsaldeko 6etan Gelatxo eta Ermuko "Grupo Rocio" taldearen saioak ikusteko aukera izango dute.

111 Zestuako bainuetxean egonaldiak edadetuentzat

FOni Aldundiak 1994ko Eguberrietarako konbibentzia egunak antolatu ditu Zestuako bainuetxean, hilaren 23tik 25ra bitartean, 65 urtetik gorako inor egun horietan bakarrik gera ez dadin. Parte hartzeko gipuzkoarra izan behar da, bakarrik bizitzea ezinbestekoa da, hau da, ez dira onartuko senar-emazteak edota bizikideak, eta Zaharren Egoitzaren batean ere ezin daiteke bizi. Bainuetxeko egonaldiaren kostua 3.000 ptakoa da eta eskaera hilaren 20a baino lehen egin, 900.43.43.43ra deituz.

■ Amodiozko gutunen III. Berrigara Lehiaketa

Bergarako Jardun elkarteak III. Berrigara Amodiozko Gutun Lehiaketa antolatu du. Lanek bi orrialdetako luzera izango dute gehienez. Lanean lema bat jarriko da. Egilearen datuak sobre itxi batean sartu dira eta sobre horren azalean lanaren lema bera jarriko da. Dena sobre handiago batean sartu eta helbide honetara bidali behar da: "Amodiozko Gutunen III. Berrigara Lehiaketa. Jardun Elkartea, Masterreka, 13, behea". Epea urtarrilaren 26an amaituko da. Irabazlearentzat 75.000 ptako saria dago.

■ BARREN sariak hilaren 23an banatuko dira

elgoiBARREN astekariak BARREN sarien bigarren edizioari dagokion sari banaketa egingo du hilaren 23an Herriko Antzokian. Iaz bezala, urtean zehar BARRENen agertutako artikulu, kolaborazio, publizitate eta bestelakoen arteko egokienak sarituko dira. Aurten bost sari banatuko dira: herriko elkarte bati, publizitate egokiena egin duen etxe komertzial bati, kolaboratzaile bati, erakunde laguntzaile bati eta herri komunikabideen aide lan egiten duen pertsona zein erakunde bati. Ekitaldi amaieran Amaia Zubiria abeslariak Gabon kanten saioa eskainiko du. Sari banaketa 19,00etan hasiko da. Herritar guztiak gonbidatuta zaudete.

Intsumisioari buruzko bilera informatiboa

Soldaduzkara joateko zozketen garaia gertu clagoela ikusita, Elgoibarko Talde Antirnilitaristak bilera informatibo bat antolatu du larunbatean, hilak 17, eguerdiko 12etan Kultur Etxean. Horrelako erabaki baten aurrean informazio egokia eskuratzearen garrantzia ikusita, antimiliek dei egiten diete intsumisioaren inguruan zalantzarik edota informaziorik jaso nahi duten gazteei.

• Gabonetako IV. Kuadrilarteko Txapelketa

Gabonetan burutuko den IV. Kuadrila Arteko Txapelketan izena emateko epea hil honen 22an bukatzen da. Bost kirol ezberdinetan aritu behar dute partehartzaileek: saskibaloian, futbitoan, palan, krosean eta txirrindularitzan. Iaz 26 kuadrilak parte hartu zuen, 348 pertsona guztira. Izen-ematearen zenbatekoa 2.500 ptakoa izango da talde bakoitzeko. Eginkizun horretarako Mintxetara (74 43 15) edo Udal Kirol Zerbitzura (74 44 15) deitu.

Iñaki Larrañaga:

"Margo arla naiz, poeta naizelako"

Ama elgoibartarra eta aita eibartarra izanik, bi herrietakoa kontsideratzen da Iñaki Larrañaga.

Eibarren jaioa bada ere, gerra garaian Elgoibarrera etorri zen bizitzera eta 42 urtetan bertan bizi ondoren, gaur egun Eibarren bizi da. Perito merkantil ikasketak egin zituen arren

bere burua formaren poeta gisa definitzen du, margoa baita bere bizia. Autodidakta eta erromantiko den honek, normalean bere tailerrean lan egiten badu ere, inspirazioa jarraituz, amorraldiek agintzen dutenean egiten du lan, ordutegirik gabe.

- Noiz hasi zinen margo-tzen?

- Betidanik gustatu zait, bizi guztian margotu izan dut baina erakusketa-tan parte hartzen. 60. hamarkadaren amaieran hasi nintzen. Bakarrik egin nuen iehen erakusketa 1971n izan zen.

- Zein pintura mota egi-ten duzu?

- Lengoia mota asko ditut eta denak nereak dira. Nere estiloak oraindik aztertu gabe daude, ez dute etiketarik. Agian, enkasillatu ahal izango da baina nere pintura guztiz propioa da. Irudiak eta abstraktoak, denetarik, normalean euskarri zurian eta pintura beltzarekin. Materialeak: papera, tableroa, izarak... erabili izan ditut, baina inoiz ere ez lientzo klasi-koa.

- Zein margolari dituzu gustukoak?

- Ni liluratzeko naute-nak "El Greco" eta "Chagall" dira. Hauek benetan atsegin ditudan arren, nire margoekin ez dute zerikusirik.

- Pinturari buruzko ikas-ketaren bat egin al duzu?

- Ez, ni margolaria naiz, poeta naizelako. Nik egiten dudana hitzik gabeko poesia da; poesia hitze-kin egiten den arren, eskultura eta pintura forma



"Nere estiloak oraindik aztertu gabe daude, nere pintura guztiz propioa da."

fantastikoekin egiten dira eta nik honi begiaren edo ikusmen poesia deituko nioke. Ikasketa oro dira aberasgarriak baina, honi buruzko ezagupenak infinituak dira eta Arte Ederretako eskola batean 50.000 gauza ikasten badituzu ere beste hainbeste egongo dira irakasten ez dituztenak.

- Erakusketak egiten dituzu?

- Askok egin izan ditut eta gehienak atipikoak izan dira. Adibidez, Getarian egin nuen bat; kale nagusian, elizaren ondoan dagoen eraikuntza huts bateko hormetan. Euritik babeste-

ko pintura textilekin, izara haunditan egin nituen eta oso polita geratu zen itsasoko haizeak sortarazten zien mugimendurekin.

Beste bat Tarazonan egin nuen. Herri honetan hiru kultura bizi izan dira: moroa, kristaua eta judua eta gainera oso ondo konpenetraturik. Leku oso erromantikoa da. Erakusketa, aintzinako Jauregi Episkopaleko sotoetan egin nuen eta nik espero nuena baino askoz politagoa geratu zen. Eibarren egindako bat ere gogoratzen dut, 77an "Agonia eta berpizte poemak". Nahiz eta lana

txikia izan niretzat oso garrantzitsua izan zen. Honetan, erakusketa gela-ko lurra pago hostoz bete nuen eta jendearen erantzuna oso interesgarria izan zen.

- Inspirazioan sinisten al duzu, edo inspirazioak lanean harrapatu behar zaituela uste duzu?

Nik inspirazioan sinisten dut, eta inspirazioa ez da ezer misteriotsua, bizitzan dena da misterio-tsua. Gauza batzuek egiteko momentu apropos bat da bakarrik, beti lortzen ez duzun momentu bat. Nik tailer bat daukat baina etxean ere margotzen dut, amorraldia dudanean edozein lekutan margotzen dut.

- Pintura zer da zuretzat, ofizioa ala alizioa?

Artea ez da profesio bat, egoera bat da. Ni formaren poeta naiz baina bai, esan dezakegu hau nire profesioa dela.

- Bidaiatzea gustatzen al zaizu?

- Bidaiatzea gustatzen zait baina ezin izan dut egin, beraz, kasu honetan zera esanez justifikatzen naiz: metro karratu batean bizi naizela baina infinitoa dela metro karratu horretan aurki daitekeena.

BEIEN ARRIZARALAGA

Kill BARREIN

Mendaroko gehiagarria

Abenduak 16

12. A[ea

Zelm 9toiteriko daL zneutera, OlenEcuro ala Erregeak?

Gabonak gainean ditugu, jadanik. Gabonekin batera umeentzat hain bereziak diren Olentzero eta Erregeak ere iritsiko dira. Mendaron biak izaten ditugu,

Olentzero bai eta erregeen kabal-gata ere. KiIiBARRENEk Mendaroko Ikastolara jo du bertako sei umeri zenbait galdera egin asmoz. Ea zer erantzun diguten:

Joseba Vaz (6 urte)

Olentzero. Olentzero mndian bizi da eta potoloa da. Nik scalextri bat eskatuko diot, lau kotxe eta lau mando dituena.



Idurre A rriola (6 urte)

Erregeak. Txuriak bi dira eta bat beltza. Nik ipuinak eta jolasak eskatu ditut. Zapatilak eta turroia jartzen ditut, eurak jateko.



Maria Etxabe

(6 urte)

Erregeak, karameluak ematen dituztelako Santa Anatik bajatzean.

Oraindik ez dot pentsatu zer eskatu. Nere etxian intxaurreak jartzen diet erregeeri.



Markel Portu

(6 urte)

Erregeak. Zapatila ipintzen dut balkoian eta leihoa irekitzen det eurak sartzeko. Mando batekin ibiltzen dan kotxia eskatuko dot.



Maialen Olazabal

(6 urte)


Erregeak, karameluak ematen dituztelako. Bik bizarra daukate eta beltzak ez. Ipuinak eta liburuak eskatu ditut. Etxeko zapatilak ipintzen ditut eta ura ere bai.



1111L...

Jokin Muñoz (6 urte)

Erregeak, karameluak ematen dituztelako. Txandala eskatuko diet eta deporteko zapatilak. Erregeak hiru dira, bi zuri eta beltz bat eta ganbeluen gainean etortzen dira.



GaEID annetako pilota saria

Abenduaren 12an hasita eta datorren urteko urtarrilaren 6ra arte, pilotazaleek badute gozatzeko aukerarik. Izan ere, Goñati pilotalekuan Gabonetako saria ospatuko baita. Ordutegiari dagokionean hona hemen partidu ezberdinak zein egun eta ordutan jokatuko diren: Eskuzko partiduak asteartean izango dira, arratsaldeko 6etatik 10etara. Palaz, berriz, astelehenean batzuk, arra tsaldekoko 6etan hasi eta 8ak bitartean eta larunbatean besteak, goizeko 11etatik lera eta arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean.

Finalurrekoak urtarrilaren 3an jokatuko dira eta finalak urtarrilaren 6an, Errege egunean. Aipatu txapelketa Pilotazale talde batek antolatu du Udalaren laguntzarekin.

2

Erregeen kabalgata

1995. urtea ezin hobeto hasteko, urtarrilaren 5ean Erregeen kabalgata izango da, ohitura den bezala. Santa Anako ermitan emango zaio hasera, iluntze aldera. Kaleetan zehar goxokiak banatu ondoren, Erregeak dizara joango dira. Bertan umeek beraiekin egoteko aukera izango dute. Aipatu kabalgata Arno Guraso Elkarteak antolatu du.



Olentzero izango dugu urtero ohi den bezala, aurten ere Mendaroko kaleetan zehar. Gaztedi taldeak antolatuta, abenduaren 24an izango da. Arratsaldeko lauetan hasiko da Garagartzako eliza aurretik. Jendea animatu nahi da baserritar jantzita joan dadin. Kalejiraren ostean musika izango da, nahi duenak fandangoa eta arin-arina dantza ditzan.



Kontzezio eguna hilaren 8an ospatu zen. Egun horretan Xabier Lizaso eta Ludwik Hamelaren musika kontzertua entzun eta honekin batera, pastak eta ardo goxoa dastatzeko aukera izan zen. Esan beharra dago jendeak ezin hobe erantzun zuela, eliza beterik baitzegoen.

NAHIA
Zorionak eta urte berri on!
11 FAPAINDEGIA

Az•ii•oeta, 16. MENDARO Tel. 75 51 01

® **LA**
BERNA
AZPILGOETA, 8 75 50 16 ARO

PROTAGONISTAK




Argazki hau Gregorio Vivesek utzi digu eta 1966ko "Gabon eskian" ateratakoa da. Hona hemen agertzen direnen izenak: Goian ezkerretik eskumara: **Jose M. Zelaia "Bizkai"**, **Gregorio Vives**, **M. Paz Ber-**

saluze, **Juanita Izurrategi**, **Mariatxo Berasaluze** eta **Jose M. Arrizabalaga**.

Behean, ezkerretik hasita: **Josetxo Izurrategi**, **Itziar Lazkano**, **Nerea Sainz**, **Roke Arriola**, **M. Angeles Zabaleta** eta **Agustin Berasaluze**.

p << .

Landa erretegikoa



1 Zein jaki eskatzen da gehien Gabonetan? Arraina, batez ere legatza eta zapoa.

1 jenderik ibiltaen al da? Normalean baino gehiago.

1 Zein egun duzu gogokoen? Gabon gaua, denok elkartzen garelako.

1 Olentzero ala erregeak? Olentzero.

1 Nori erregalatuko zenioke **afari eder bat**? Gabonetan bakarrik dagoen eta behar duen norbaiti.

1 Zein da egin dizuten inuzentekeriarik handiena? Athletic-a UEFAko txapelduna izango dela esatea.

1 Zein jaki prestatzea duzu gogokoen? Eta **jatea**? Prestatzea "Rape a la americana" eta jatea angulak.

1 Zer eskatzen diozu urte berriari? Lana, osasuna eta azken bi urteak baino hobe izan dadila.

1 Errezeta on eta merke bat? Piper beteak txangurroarekin. Osagaiak: piperra (16), txangurroa (2), tipula (2), baratxuria (4), azenarioa (4), olioia, baso erdi esnegai likido, tomate frijitua, koñak apur bat eta piper beltz piskat. Prestakuntza: tipula, baratxuria eta azenarioa doratu eta ondoren, txangurro birrindua nahastu. Ordu erdi pasa eta tomatea, esnegaia, kotia eta piper beltza gehitu. Ordu bete eduki ondoren betegarri honekin piperrak bete eta gaitetik piper saltsa bota (8 piper txikitu, basokada bat esnegai bota eta gatz piska batekin nahastu).

Saltzen,

Gogoz itxaron **ohi** ditugu Gabonak urtero. Falta direnak dute. Euskal Herrian Gabon Gaua, Gabon Zaharra eta gogoratu, senideak elkartu, abestu eta ondo pasatzea Urte Berria ospatzeko denok behar baino gehiago jaten izaten dira eginkizunik garrantzitsuenak. Baina, badi-ra beste zenbaitzu ere, hala nola, erosketak. Gabonetan, jakiek izugarritzko garrantzia

GALDERAK:

- 1- Zer saltzen da gehien Gabonetan?
- 2- Saltzen den produkturik garestiena?
- 3- Gabon egunerako menu bat?
- 4- Krisia igarri al da zuen dendetan
- 5- Zer eskatzen diozu urte berriari??

dugu. Horren lekuko ditugu dendariak, egunero ikusten gaituzienak eta egun hauetan gugan sortzen **den** aldaketa somatzen dutenak.



MAURIZIO MAIORA

Harakina

- 1- Gabon garaian gehien arkumea, txuletak, solomoa eta redondoa saltzen dira.
- 2- Solomoa, dudarik gabe, arkumea merketzen ari baita azken urteotan.
- 3- Hasteko entremesak, gainean

legatza eta arkumea. Postre gisa turroia eta edateko ardo on bat eta txanpai freskoa.

- 4- Bai igarri bai, baina bai krisiagatik, bai eta kompetentziagatik ere.
- 5- Lana eta osasuna.

SATUR ROTETA

Roteta dendakoa

- 1- Urte guztian erosten ez dena: likorrrak, txanpaina eta mariskoa.
- 2- Gabonak oferta garaia denez, prezioak jeitsi egiten dira.
- 3- Gabon afarirako hau litzateke: hasteko jamoi on bat, esparragoak eta langostinoak. Gainean angulak eta bildotsa. Bukatzeko, turroia eta afari guztia busti zeko kalitate oneko txanpaina.
- 4- Bai, baina ez dakigu krisia ala kompetentzia den.
- 5- Lehenengo osasuna eta bigarrenik, lana.



4

JUAN JOSE GOIKOETXEA

"Estanko" dendakoa

- 1- Gabonetan tipikoak direnak, langostinoak, txanpaina eta turroia.
- 2- Jabugo jamoia batez ere, nahiz eta kokotxak ere garesti dauden.
- 3- Lehenengo entremesak eta gero bixigua. Postre bezala, turroia eta konpota, ohiturak mantendu egin behar dira eta. Edateko, ardoa eta txanpaina.
- 4- Diru gutxiago dabil poltsetan, jendeak presupuestoa murriztu du baina gu beti maila batean mantendu gara.
- 5- Lana eta bakea.



ALBERTO EIZAGIRRE

Arraindegikoa

- 1- Langostinoak eta legatza gehien.
- 2- Angulak, baina ez da gehien saltzen den produktua.
- 3- Entremesak, ondo prestatutako karakolak eta legatz on bat. Ondoren turroia edo mazapana eta edateko ardoa edo txanpaina.
- 4- Igerri da baina beharbada kompetentziagatik izan daiteke.
- 5- Egoera aldaketa eta presoen askatasuna.

KiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe Zabala.

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argita



San Frantzisko 44, 74 41 37



San Roke 6 behea tel. 74 34 91

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21

1_20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46

20 870 ELGOIBAR

Cecilia Gorroño

Gorroño dendakoa



- **Ali Baba bazina, zer eskatuko zenieke lapurtzeko 40 lapurrei?**

Kotxe berri baten beharra daukat, beraz, kotxe bat.

- **Alfonbra hegalaria bat bazenu, nora bidaiatuko zenuke?**

India ezagutu nahi nuke.

- **Zer egingo zenuke ohe biribil batean?**

Nahiago ditut ohe normalak.

- **Noren oinetan luzatuko zenuke terziopelo garantezko alfonbra bat? 1** Ez dut uste inork horrenbeste merezi duenik.

- **Zein etxeko felpudotan garbitu nahi zenituzke zure oinak?**

> Ez daukat berezirik, baina Versailles bisitatu nahi nuke.

- **Elgoibarko zein eraikuntza dekoratu nahi zenuke?**

> Kultur Etxea, adibidez.

- **Goizean goiz zure etxeko leihotik barrura begiratuko bagenu?**

Sukaldea ikusiko zenuteke eta bertan ni kafesne azkar bat hartzen.

- **Zein tela erabiliko zenuke mundua biltzeko?**

||| Linoa, tejido natural bat.

- **Merezi al du batzutan bizitza kortinaz estaltzea, guk nahi adina igo eta jeisteko?**

Bai, ondo letorke mementu txarretan bizitzatik at geratzea.

- **Norekin bizi nahi zenituzke "Noches de blanco sat"n" direlakoak?**

> Richard Gere-rekin.

- **Dutxa eta gero, toaila ala albornoza?**

1 Biak erabiltzen ditut, albornoza toailaren ondoren.

- **Berotzeko manta ala edredoia? 1** Lumazko edredoia, onena.

- **Jubilatzen zarenean? 1** Bizitza lasai hartu eta bidaiatu.

- **Zein ikastaro egin nahi zenuke? 1** Dantza egiten jakitea gustatuko litzaidake, edozer, euskal dantzak edota tangoa, balsa...

- **Izaten al dituzu amets gaiztoak?**

Txikitan gehiago, gaur egun apenas.

- **Zure gorputzeko zein ataletan egingo zenuke zirujia?**

Ezpainetan.

- **Zein kolorekoa ikusi duzu gaurko eguna? 1** Urdina.

- **Estresa zer den ba al dakizu? /** Batzuetan esan izan dut estresaturik nagoela, ez dakit benetan estresa izan den ala ez.

URTE BUKAERA

DOINUA:

Begira nago begira behera

Matematika, filosofia,
fisika eta frantsesa.

Ikasle onak direnentzako
ez da gauza ezereza;
alfer xamatTak garenontzako
a zer nolako tristeza.

Urduritasun ta presa (Bis).

Denbora hartu,
eta gauzak ongi pentsa.

Lasaitu eta asko ikasi
nahiz eta ez den erreza (Bis).

Denak ikasten hasiko gara •-
poseso batzuen gisa.

Batzuk egunez ta beste batzuk
ilunabarran gerizan,

batzuek lasai hartuagatik,
harnarretik zortzi presan.

Apunte denen peskisan
Kandelaren bat ere agian

aurki daiteke elizan,

baina hau ez da hainbesterako
eta zorte ona izan (Bis).



ARNAITZ GORRITI



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Deba ibaia zabaltzeko obrak A|| llan

Obrak hasi dituzte Altzolan Deba ibaiaren bideratzea eta aforo estazio bat egiteko. Aipatu obrak hasi dira dagoeneko eta proiektuaren arabera, bost hilabeteko epea dago burutu ahal izateko. Hona hemen obren nondik norakoak. Alde batetik zabortegi bat eraikiko da, 0,87 m-ko altuera izango duelarik. Zabortegi honek 1:20ko zeharkako aldapa izango du, beste 1:2ko aldapa luzerara Altzolatik Elsoibarrerako norabidean eta 1:5ko aldapa Altzolatik Debara. Azken norabide honetan depresio bat eraikiko da arrainek zabortegiak suposatuko duen oztopoa jasan ez dezaten.

Zabortegia H-200 porlanezkoa izango da, H-200, eta zertxobait armatua joango da. Tontorraren goiko aldeko ertza altzairu erdoiltzezko txapa batez babestua dago. Era berean, atsedean zona bat eraikiko



Obrak bost hilabete barru bukatuko dira gutxi gora behera

da arrainentzat.

Errekaren bideratzeak 29 m-tako zabalera izango du porlanezko hormez eraikia. Era berean, neurketak egiteko kaseta bat jarriko da, azpian ura lasaitzeko putzu bat izango duelarik.

Obra hauek egiterakoan kontuan izan da ingurunearekiko egin dezaketenen eraso. Hori dela eta lur bejatala jarriko da inguruan, belarra landatuz. Aurrekontuari dagokionean, guztira, 58.938.147 ptakoa da.

Chrysler-ek aurkezten du:

Chrysler Neon berria Chrysler-Jeep gamako ezaugarriarik bikainenak antzemango dituzu. Chrysler Voyager-etik espazioaren erabilera aproposa, Chrysler Vision-etik seguritatea eta komoditatea. 2.0 L, 16 balbula, motorraren

arintasunak, seguru Chrysler Viper-ek errepidearengatik duen griria gogora arazten dizula. Eta nola ez, Jeep Grand Cherokee beraren abentura izpiritua ere jaso du. Zatoz orain lagun herri eta bikain bat ezagutzera: Chrysler Neon.



Chrysler Neon, 2.0 L, 16 V y 132 CV.



COCAR



CHRYSLER

Gran Via, 4 Tel. 28 63 21
DONOSTIA

Jeep

Santa Klarako ezpataina

; Ezpatainaren harlandua kararriz egina dago eta Altxolako harrobi batetik ekarritako harriz landu zen, Horma bakarreko kanpandorre honetan hiru atal bereizi daitezke. Lehenengoak zokalo zabal bat osatzen du eta mazizoa da, baogunerik gabekoa. Erdiko atalak zokaloaren zabalera berdina dauka eta tamainu berdineko dobelez osatutako erdi puntuko bi arku simetriko ditu inposta nabariez ageri dena.

Goiko atalean pinoia eratzen da pilareetan eutsitako erdi puntuko arku bakar batez. Hemen ere inpostak nabarmentzen dira eta honen gainean frontoi txiki eta fin bat tinpanoaz erdian domina bat duelarik. Hirugarren atal hau da dekoraziogune garrantzitsuenak. Bost piramide bola dauzka, bi bigarren gorputzaren gaineko alde banatan eta beste hiruak frontoiaren ertzetan eta erdian. Frontoi gaineko erdiko piramidean burdinezko gurutzea eta ipar-orratz artistikoa daude.

||| Guzti hauez gain, erlaizak ere dekorazio elementu garrantzitsuenak dira. Hauek bozel, eskozia eta anene edo filetez osatuak daude eta arkitektur multzoari dotoretasuna ematen diote.

Kanpandorre hau inauguratu zenerako kanpai berri bat egin zen. Honetarako kanpai bat urtu zen eta 25 libra berun gehitu zitzaion, guztira 115 librako pisua hartu zuelarik. Kanpai berri honek 380 erreal eta 14 marabediko kostua izan zuen. Bestalde, ezpatainaren gaineko gurutzea urreztatzeke 240 erreal behar izan ziren.

Gaur egun ezpatainaren hiru kanpai daude erdi puntuko beste horrenbeste arkuz babestua. Altuen dagoen kanpaiak Santa Maria izena dauka, 46 zm ditu eta bueltan gurutze bat eta


"Santa Maria ora pro nobis" (Santa Maria Otoitz gure alde) dauzka grabatuak. Kanpai hau Santa Klara komentu zaharraren aurreko aldean egon zen ermitakoa zen, "Salvaclor" izenekoa bera. Errepidea egiterakoan aipatu ermita bota zuten eta kanpaia komenturako geratu zen.

□ Ezpatainaren erdiko atalean ia tamaina berdineko (51-52 zm) beste 6i kanpaiak aurkitzen dira, Santa Klara eta Santa Barbara izenekoak. Biek gurufzea, izena, urtea eta egilea dute grabatua.

Zaharrena, Santa Barbara, 1825. urtean egin zen. "Antonio De la Hoyot me fizo" idatzia dago bertan, egilearen izena irakurritz. Hanez gain "Jesus, Maria y Jose" idatzia ere dauka grabatua.

Santa Klara kanpaia 1867an egin zen eta egilea Esteban Etxebaster izan zen. Kanpaion irakurri daiteke, "Por Esteban Echebaster-Vitoria".

PELLO ARRIETA



Bernardo Ezenarro

(1873-1956) irakaslea



1873ko abuztuaren 20an jaio zen. 13 urterekin Eibarren marrazketa lineala eta artistikoa ikasten hasi zen. Donostian eta beranduago Parisen ikasketa sakonagoak burutu zituen.

Elgoibarrera bueltatzean Marrazketa Akademiaren ardura hartu zuen. 1916an Arteen eta Lanbideen Eskola sortu zen. Bertako zuzendaritzaren kargua izan zuen, 78 urterekin jubilatua zen arte.

52 urte eman zituen irakaskuntzan.

1952ko ekainaren 29an Udalak omenaldia egin zion.

0 1956ko martxoaren 21ean hil zen.

0 1969an herriko kale bati bere izena jartzea erabaki zuen Udalbatzak.

0 Gaurregun 500 ikasletik gora dituen Lanbide Heziketa Institutuak ere bere izena darama.

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86

11 **INTERIORES**

- SUKALDE ETA SAINUAK
- PROIEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ERREGALUAK

Tel 74 40 55 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Fotero

OKINDEGIA

OPILDEGIX

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Maria Urizar

ileapaindegi mixtoa

Errosario 9-1ezk.
74 44 89 ELGOIBAR

MOTZAK

Lagun Taldearen bilera

Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeak bilera egingo du gaur, hilak 16, arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean. Bilerara joan daitezzen dei egiten zaie txirrindulariei eta hauen gurasoei ere bai.

Murkaikupe pilota txapelketako finalak

Igande honetan, hilak 18, II. Murkaikupe esku pilota txapelketaren finalak jokatu dira San Migelen eguerdiko 12etan hasita. Hogei bikotek hartu dute parte guztira, bi mailatan banatuta. Lehen mailan Odria eta Etxeberriak Maguregi eta Agirrebeñaren aurka jokatu dute eta bigarren mailan, Txurruka eta Orbea, Antton eta De Pablaren aurka arituko dira.

Elgoibarko I. Bolo Txapelketa hasiko da larunbatean

Larunbat honetan, hilak 17, I. Bolo Txapelketa jokatu da San Lorentzoko holatokian gaueko 9etatik aurrera. Lau tiralditan banatuta dago txapelketa. Lehen larunbatekoa izango da San Lorentzon, bigarrena San Migelen urtarrilaren 14an, hurrena San Roken urtarrilaren 21ean eta otsailaren 11n, San Pedron, finala eta sari banaketa izango dira. Sei kideko taldeak, bost titular eta ordezkoko bat, osatu beharko dira parte hartu ahal izateko, guztiak elgoibartanak izan beharko direlarik. Txapelketa baino ordu erdi lehenago emango dira izenak.



Arkaitz Baizola:

"Ezkertixeri hobeto urtetzen jakuz dejaciaku

1 "Baque" txapelketan fin ibili zara. - Deba Beheko mailan, finala ezik, denak irabazi nitxun. Nerbioso jarri nintzan eta galdu ein naban Eibartarran kontra.

Kadeteetan azken urtea, ez?

- Hemendik aurrera jubeniletan hasiko naiz, diferentzia haundixa dao.

1 Hurrengo torneo? - Oin bi datoz, Deba Arrokoa eta Herrien artekoa. Asmua bixetan jokatzeo daukat, jubeniletan hain zuzen.


1 Elgoibarren zenbat zaudete zure mailan? Kadetietan bakarra naiz eta jubeniletan hiru daoz eta txikixetan, berriz, mordua. Gure edadian dana zan futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Gu lagunak alkartzen ginan eta hola hasi ginan.

1 Bereziki zaindu behar dira eskuak? - Bai, oin ere eskuetatik gaizki nao, azken partiduan izorratu nitxun. Asko zaindu bihozuz, egunen baten takua ez badozu jar-tzen edo ondo berotzen ez badezu, sartu eitzen jatzu pelotia eta pikadak sortu. Pikaduria haunditxu ei-txen da eta sendatzeko oso zaila da.

1 Aurkakoaren jokaldia aurreikusteko modurik?

- Elkar ezagutzia oso inportantia da. Kadetietan danak ezagutzen nitxun baina oin jubeniletan batzuk bakarrik dia ezagunak. Oin danak ezagutu artian gogorra

- Adina: 15
- **Zaletasunak:** Futbola, baina ez gehixegi.
- Tantu motzak ala luzeak? Tantua azkar eixia gustatzen iat.
- Nori irabaztea nahiko zenuke? Plaentxiarrei.



izango da.

1 Ba al duzu pilotari eredu bat?

Galartzan estilua gustatzen jata. Baina partiduetan pare bat tantu atzetik badixe desmoralizatzen has-ten da. Hortan hobia da Retegi.

1 Zein da zure lekua frontoian?

- Atzian, baina oin arte gaztiao batekin jokatu dotenez aurrian jokatu dot eta jubeniletan ere segurtien aurrean jokatu biharko dot.

1 Zein jokalditan zara espezialista? Sakia ona daukat; bi paretak eta txokuan dejada ere ondo ateratzen jataz. Ezkertixa naizenez dejadak hobeto urtetzen jataz.

1 Pilota motan maniarik?

- Segun kontrarixua, baina bizixa nahixao.

1 Denbora asko kentzen dizu pilotak? - Examinetan batez ere. Entrenamientuak, saltaka, gimnasia... Examinetan gutxio eitzen dot eta gero, pisuan igarri eitzen da.

1 Profesionala izatea gustatuko litzazuke? Bai, baina oso zaila da, segundara salto bildurgarria dao eta hirugarrenera ere bai, baina batzuk pasatzen dia.

TTA Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Kartutxo Pub

S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

URKIOA

StR Franizisho 15 m. 74 92 50



Iz)

Universidad de CHILE



JOKALARIAK: Zutik, ezkerretik eskumara: Jose Antonio Etxeberria, Endika Gonzalez, Jon Lizarralde, Aitor Galarraga eta Ramon Jauregi. Makurtuta: Aitor Ibabe, Gorka Azpilikueta, Jon Galarraga eta Eduardo Sanz.

EK1POKERIAK

- > IZENA: **Universidad de Chile.**
- > ZERGATIK? **Talde hego-amerikarren futbola miresten dugulako eta praktikatzen dugun futbol txantxullero eta ikusgarriagatik. Bestetik, gure kamisetak daraman kolorea ez dugu propagandarekin zikintzerik nahi.**
SORRERA: 1987-88 urtea.
AURTENGO ASMOAK: **Ligarako klasifikatzea aspaldiko partez eta ezin bada, aidiz finalean gaidu dugun Kopa irabaztea.**
- B/B AD1NA: 24 urte (+ -1).
- > LORPENAK: Bi aldiz **Kopako txapeldunorde.** 91.ean, **taldeko ekipo golegileena. Behin,** Ramon Jauregik **Kopako finalaren jokalaria onenaren trofeoa jaso zuen.**

A Taldea

1. G. GARCIA	12	21
2. KING-KONG	11	17
3. D.T. VETERANS	10	10
4. SANROKETARRA	9	14
5. KOSAKOS	7	11
6. AMETSA	6	7
7. LA MAXIA	6	-7
8. D. KALIMOTXO	6	-13
9. RUA	5	-2
10. ORAIKO CAFE	4	-14
11. ALDAVAS	4	-16
12. HARITZA	2	-7
13. REPLASTISA	0	-21

G LAK

GOLEGILERIK ONENA

Mancebo (Mimox) 13 gol
 Dobarro (Mimox) 11 gol
 Gonzalez (Mimox) 11 gol
 Conde (Pedruscos) 11 gol
 Gonzalez (Karkis) 10 gol

GOL GUTXIEN JASO DUEN ATEZAINA

Iglesias (G. Garcia) 3 gol
 Galarraga (Mimox) 6 gol
 Diaz (King - Kong) 7 gol
 Iriondo (Kosakos) 7 gol
 Mancisidor (San Roketarra) 7 gol

Taldea

1. MIMOX	14	40
2. PEDRUSCOS	13	27
3. SPORTING	11	8
4. KARKIS	10	22
5. UNIV CHILE	8	6
6. GRUAS PANA	7	10
7. H. VERBOTEN	7	6
8. REBEL URBI	4	-17
9. LUCKY LUKE	3	-6
10. TROPIKO	3	-13
11. FOTERO	2	-6
12. BERROGIE DURO	2	-36
13. RESTO MLINDO	0	-41

LW"

1 ml

.71

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 17

12,30: Elgoihar- Real Union (Infantiak)
 17,00: Haundi - Zalla

Igandea 18

12,00: Elgoihar - Arrasate (Kadeteak)
 16,30: Elgoibar - Antzuola (2. errejionala)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 17

16,00: Pagoaga Elgoibar - Hernani (Kadete neskek)
 17,30: Txankakua Elgoibar - Ereintza (Senior mutilak)

Igandea 18

12,00: Elgoibar - Aloña Mendi (Jubenil mutilak)

FUTBITOA Urasandin Igandea 18

10,00: Rebel Urhi - Hunde Verboten Berrogei Duro - Fotero
 11,00: Tropiko - U. de Chile Gruas Pana - Mimox
 12,00: Lucky Luke - Sporting Karkis - Pedrusko

PILOTA San Migelen Igandea 18

12,00: I. maila: Odria / Etxeberria - Maguregi / Agirreberria
 Txurruka / Orhea Antton / De Pablo

FUTBOLA

Getxo 0 - Haundi I
 Urki 1- Elgoibar 4 (2. errejionala)
 Elgoibar 0 Amaro 1 (Juhenilak)
 S. HetTera 2- Elgoibar 1 (Infantilak)
 Almen 1 - Elgoibar 5 (Kadeteak)
 Elgoibar 1 Urretxu 0 (Neskak)

ESKUBALOIA

Pagoaga Elgoibar 2() - Zarautz 2 (Kadete neskek)
 Bergara 18 - Elgoibar 20 (Juhenil mutilak)
 Elgoibar 14 - Zarautz 15 (Senior neskek)
 Txankakua Elgoibar 22 Zestoa 17 (Senior mutilak)

FUTBITOA

Aldavas 1- D.T. Veterans 2 D. Kalitnotxo 0 - Kosakos 7
 Haritza 2- Oraiko Cafe 4 La Maxia 2- Ametsa 3
 Replastisa 0- San Roketarrak 7 Rua 2 - G. Gareia 3

TEKNICALDE, S.A.:

Galdaragintza eta teknika bateginik

Galdaragintzako beste enpresa batzuek bezala Teknicalde, galdaragintzaren sektoreak etorkizun handia izan zezakeela ikusita, sortu zen 1989. urtean. Herriko zenbait enpresa gizonen kapital inbertsioak egin eta galdaragintzan esperientzia luzea zuen Juan Manuel Cendoyaren zuzendaritzapean lehen urratsak eman zituen Teknicaldek.

Galdaragintzaren barruan esparru zabala hartzen du Teknicaldek. Produktu ezberdin ugari fabrikatzen dituzte: makinenzako karenatu edo estalkiak, karro bereziak, biruta ateratzeko tresnak, armairu eta koadro elektrikoak, biruta eta pieza transportadoreak, era guztietako bankadak, punzonatuen arloan CNCentzako botoi kaxak eta punzonatu pieza serieak... Adibide hauek erakusten duten moduan produktu zerrenda oso zabala da. Erreminta makinaren sektorearentzat lan ugari egiten dute, tornu, fresadore zein errektifikatzaileen kanpo aldeko estalkiak eginez.

Azken aldian proiektu garrantzitsu batzuetan parte hartu dute. Esaterako, Beasaingo CAF enpresarentzat AVE-AHT (Abiadura Handiko Trena) deritzon treneko pieza ugari fabrikatu dituzte. *Ingemat* ingenieria enpresarentzat ere, Gasteizko *Mercedes Benz* auto etxea egiten ari den furgoneta berrirako galdaragintzako pieza ugari fabrikatu dituzte eta furgonetaren segurtasun instalazioen hertsiera sistema osoa ere bai.

Galdaragintzaren barruan metalizko altzarien alorrean *Laster* etxearentzat lan egiten dute. Tabako eta edari makinak egiten dituzten *Azko-yen* eta *fofemar* etxeentzat ere jarduten dute, zenbaitetan txaparen garrantzia, ebakidura, punzonatua eta tolesdura eginez, eta bestetan muntaiatz ere arduratzen direlarik.

Enpresa txiki xamarra da, 16



• Galdaragintzaren barruan esparru zabala hartzen du Teknicaldek. Goiko argazkian, J. M. Cendoya.



EINIPIRESAREN FITXA,

X IZENA: TEKNICALDE, S.A.

lrt SORRERA URTEA: 1989

St SORTZAILEAK: Jose Ramon Araolaza, Cruz Arriola, Luis Clerigue eta Juan Manuel Cendoya.

ic IHARDUERA NAGUSIA: Galdaragintza orokorrean.

X ZUZENDARI OROKORRA: Juan Manuel Cendoya.

X FABRIKATZEN DUTEN

PRODUKTUA: Makinen estalkiak, CNC-entzako kaxak, lonazko zintak eta rodillo-zintak, birutentzako kaxa mugikorak, biruta ateratzeko tresnak,
X LANGILE KOPURUA: 16
X URTEKO FAKTURAZIOA: 140 milioi.

it ESPORTAZIOAK %tan: % 3/4

HELBIDEA: Oiaso Kalea 23, Olasoko industriaklea

X TELEFONO/FAXA:

74 35 19 /74 39 07

langile ditu. Harreman pertsonalek izugarriko garrantzia dute; Cendoya zuzendariarentzat funtsezkoa da enpresaren martxa onerako.

Irakaskurriza funtsezkoa

Espezializazio handia eskatzen duen sektorea da galdaragintza. Fun- tsezkoa da denetarik jakitea eta espe- rientziduna izatea ofizial ona izateko. Goierri aldean eskola bat dago baina hemen inguruan ez omen dago galdaragintza irakasteko zentzurik. Agian Deba Behean adar hau irakastea inter- resgarria izan daitekeen iritzikoa da Juan Manuel Cendoya, Teknicaldeko zuzendaria.

Galdaragintza goraka

Goraka doan arloa da galdara- gintza. Europan esaterako, gero eta protekzio eta segurtasun neurri zorrotzagoak eskatzen dituzte erre- minta makinetan. Oraindik ere heda- tzeko aukerarik baduela sektore honek esan nahi du horrek Cendoya- ren iritziz. Ildo honetatik datorren urtera begira, enpresa hedatu edo zabaltzeko asmotan dabilta. Lokal handiagoa ezezik langile kopurua ere handitzeko asmoa dute. Egingo duten inbertsioa 200 milioi ingurukoa izan daiteke.

Musikeskolako ikasleak, sarituak

Gabonetan musika kontzertu bereziak

Inazio Bereziartua musikeskolako akordeoi taldeak lehen saria lortu zuen hilaren 3an Cantabriako III. Akordeoi Lehiaketa Nazionalean. Maite Janeiro irakasleak zuzenduta, *Mini-Express* obrarekin irabazle geratu ziren lehiaketako gorengo kategorian (beheko argazkia). Eskumako argazkian, berriz, azaroaren 26an burutu zen Euskadiko III. Akordeoi Txapelketan bigarren saria eskuratu zuten Maite Zubiaurre eta Lisbeth Roteta mendarotarrak agertzen dira. Maite Zubiaurre bigarren geratu zen A kategorian eta Lisbeth Roteta bigarren, C kategorian. Sari hauez gain, musikeskolako ikasleak diren Asier Elustondok, Lorea Gabilon-

dok eta Maite Zubiaurrek zilarrezko domina eskuratu zuten joan den 3an eta 4ean, Arrasaten izandako VII. Akordeoi Jaialdian.



Aurtengo Gabonetan aparteko musika kontzertuak eskainiko dituzte herriko musika taldeek. Hilaren 18tik hilaren 31ra bitartean, bost kontzertu egongo dira. Lehen kontzertua, igande honetan, hilak 18, Udal Musika Bandak eskainiko du. Egurdiko I 2,30etan ohi denez, hasiko da kontzertua Herriko Antzokian. Sei obra joko dituzte J.A. Osororen agindupean: *"Roncia en Castilla"*, *"Bandieten Streken"*, *"Exodo"*, *"El barberillo de Lavapiés"*, *"A arismas Dance n 1"* eta *"O/entzaro"*. Bandak saio berezia emango du Gabon Egunean, arratsaldeko 7etan herriko kaleetan Gabon kantak eskainiz. Hilaren 22an, osteguna, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleen eta Udal Txistularien txanda izango da. Hauek kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 7,30etan Herriko Antzokian. Hilaren 25ean, Eguberri egunean hain zuzen, parroki abesbatzak 12,30etako mezaren ostean eliz-arkupeetan kantatuko du. Hil honetako azken Gabon kontzertua hilaren 31koa izango da. Ohitura denez, Itxaropena abesbatzak kantatuko du. Saioa arratsaldeko 5,30etan izango da Herriko Antzokian.

DORI urdaitegia

KALITATE ONENEN K O PRODUKTUAK

Zorionak eta Urite Berri On!

Errosario 29. ☎ 74 11 92 ELGOIBAR

S A S A Maria Angeles Azpiazu **S A T R E R I A**

Zorionak!

Azpilgoeta, 24. MENDARO Tel. 75 50 86

MANU IZAGIRRE ETA ASTIGARRAGA:

"Aukeran, bideo klip-ak eta beste herriei buruzko dokumentalak egingo genituzke"

25 urte dituzte eta orain lau urte ikusentzutezko ikasketak amaitu zituzten Andoainen. Iñigo Arrasate Telebistan aritu zen kamara lanetan bi urtez. Gaur egun biek Eskoriatzako Irakasle Eskolan diardute, bideoak egiten. Orain gutxi Lekeition bigarren saria jaso zuten dokumental sailean. Idiazabal gaztaren prozesu industrialari buruzko bideoa aurkeztu zuten.


• Zein da zuen lana? Informatika eta bideoa lantzen ditugu eta gaur egunean esan daiteke multimedia ingurua ikutzen dugula. Gure lana teknikoa da, ematen diguten gidoia jarraituz irudiak kamaraz jasotzea eta gero editatzea, montatzea, hau da, irudiak, soinua eta ahotsa lotzea.

■ Zein motako bideoak egiten dituzue? Batez ere didaktikoak, OHOKo haurrei zuzendutakoak. EIMA izeneko programa bati esker, euskaraz eginiko material didaktikoari laguntza ematen zaio. Horrela hasi ginen lanean. Horrez gain, bestelako lanak ere egiten ditugu, kontsumo mailan, adibidez, OMIC-ek eskatzen dizkigunak, industria mailan ere bai...

• Gehienbat informatiboak, beraz. Informatiboak ezezik, bideo horien bidez motibazioa ere bilatu nahi da; kontsumitzaileei nola jokatu behar duten azaltzea, adibidez.

• Gustuko lana al da? Bai, dudarik gabe. Gainera, kasu honetan gure esku dago produktuaren kontrola, testua ezezik gainontzeko guztia ere guk egiten dugu, haseratik azken produktua lortu arte gure esku dago irudiak hartzea, hautatzea, lotzea, soinua sartzea... Beste lan batzuetan, telebistako kamara bezala, adibidez, eginkizun bakarria irudiak hartzea da.

• Aukeran, zein bideo mota egin nahi zenukete? *hligo*: Neri publizidadia eta bideo klip-ak asko gustatzen jataz, sormena asko lantzen delako, irudimena, zure kontura zoaz eta nahi dituzun irudiak hartzen dituzu. *Manu*: Errealidadia isladatzia gustatzen jata, esperientzia ezberdinak kontatzea. Adibidez, beste herrialde



batzuk ezagutzia eta horiei buruzko dokumentalak itxia asko gustatuko jatan baina hori zaila da, oso zaila.

• Eta zinea? Oso urruti ikusten dan mundua da. Zinia, ikusteko hobe.

• Kamara atzean ala aurrean? Atzean, atzean. Zenbat eta gehixo ezagutu guzti hau orduan eta gutxiago gustatzen jaku kamara aurrrian ipintzia.



HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(^{TT} 74 30 40) ELGOIBAR



**P
U
B**

ARRATS


Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel, 75 50 58

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



IKSAL1111⁵



GURELESA



SANTA ANA 41. ⁵T 74 10 41 - 74 11 3

OLENTZERO 94

Abenduak 24, Iarunbata
Goizeko lietan Maalako parkean



EGITASMOA:

Plaza Handiraino kantu eta kalejira tartekatuz.

13 Plaza Handian Olentzerori eskutitzak

emango dizkiogu.

Segidan, Olentzerok goxokiak

banatuko dizkigu.

11111111M ZINI1

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA Kuliur Elkarte



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





San Bartolome 35 Tr 74 03 45



San Frantzisko 74 28 75



11/1211TE

San Frantzisko 15 *zr 74 16 88

GOZOGINTZAREN ARTISA UAK GARA,

Urteetako esperientzia da gure garantiarik onena. Ezagutzen gaituzue eta ziur gaude orain arte erakutsi diguzuen konfidantza ez dela etengo. Pastel, tarta eta gainontzeko gozorik onenak gozotegietan daude. Gure gozotegietan.

or/1.1-



11

701400

ot/t

Garajeak

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifizioan. Prezio onean.
2r 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
1I 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen da pista heltzean.
tr 74 00 70 Iñaki

GARAJE BAT dut alokatzeko pista heltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
IEr 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehenbaitlehen.
Tr 74 22 70 Igor
 Gaeuz 9etatik 10etara

Salerosketak

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.
rr 74 11 28 Juani
73' 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.
a- 74 13 97
 8,30etatik aurrera

Estilo Castellano-dun LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, 1'35; armarioa, hi mahaitxo eta tokadorea ispiiluakin.
u• 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.
tr 74 01 75

XT 600 YAMAHA TRAIL motor bat salgai. Matrikula, SS-x.
rt 74 10 35

Ordenadorerako MAHAI BAT eta balkoirako ZAPATERD ARMARIO BAT saltzen ditut. Berri berriak. Fondoa 45 zm., Altuera 1,40 m. eta zabalera metro hat.
IT 74 34 86

R-21 TX-E kotxe hat salgai. Matrikula, SS-z.
-s 74 10 35

EKONOMIKA BAT saltzen da. Labe eta guzti Berria.
v• 74 09 86
 Deitu arratsalde 8,30etatik aurrera.

GIMNASIA EGITEKO BANKO BAT SALTZEN dut. Abdominalak, arrauna, e.a.... egiteko balio du.
.zr 74 29 52
 Gaeuz 8- 1 Oetara

Bi izarreko FRIGORIFIKO BAT saltzen da. 3 urte ditu. 15.000 pta.
tr 74 19 57

Lana

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gazteleraz. Maite.
v• 74 39 24

PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA naiz eta OHoko klaseak ematen ditut. Emaizta onak
T 74 14 14

IDAZKARIA eta ENPRESARIALESEN diplomatua, informatika ezagupenekin edozein ofizina lan egiteko prest dago salmenta ezik.
13' 74 39 89 (Mari Karmen)

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
v• 74 21 88 Pilar

Neska euskaldunak ETXEKO LANAK egin edota HAURRAK ZAINDUKO litzuzke.
v• 10 06 23

Klase PARTIKULARRAK ematen diet OHoko haurrei.
'zr 74 28 53 Lorea

HAURRAK ZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.
lzt (94) 682 78 18 Iratxe

TITULUDUN ERIZAIN euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zainduko litzuzke gaeuz edo egunez, etxean edo ospitalean.
13* 74 02 33 Marta. Goizez

MARRAZKETA TEKNIKOko klaseak ematen dira. COU, UBI, IMH, LHI.
Tr 74 17 60 Iñaki
 74 34 01

ETXE BAT ALOKATU EDO SALTZEN DUT Torreviejan (Alicante). Bungalow. Altzariak eta garajea.
Tr 74 24 26 Domingo

BELARRITAKO BAT galdu nuen abenduaren 8an. Lazo forma dauka eta erdian perla zuri bat du.
v• 74 19 71

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.
17 74 05 74 Maite

CARITASEk erropak gordetzeko ARMARIO BAT hehar du.
 74 12 57
rr 74 15 09

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak..... 461111
 Txanda hartzeko..... 743354
 Planning 742950
 Alkoholiko Arionimook. 740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitala 756264
 Drogomenpeketasun Z.. 741008
 Odol Emailak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak..... 740442
 PESA (Eibar)..... 112131
 Taxi Geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Kirol Zerbitzua 744415
 Kultura Zerbitzua 74158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua ... 743736
 Udaletxea 741050
 lidaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740142
 Elgoibarko Izarra..... 741626
 IMI 741196
 Kontsumo Bulegoa .. 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Polikiroldegia 741361
 Postetxea..... 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza... 740296
 Zaharren Biltokia 740526

1KASTETXEAK

Herri eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Institutua 74 02 67
 Ikastaia 74 44 41
 L.H.I..... 74 44 80
 Pilar Ikasteixea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Mundo 74 22 67
 El Correo Español .. 74 10 82
 Egin 11 84 21
 Deia 74 11 57
 Zazpiki 74 34 74

1 OSTIRALA

22,15 DANTZA

"Amets Beroak" Arteszena
Gipuzkoako Teatro Publikoa
1/ Herriko Antzokian

LARUNBATA

10,30 ATLETISMOA

,/ Mintxetan
Antolatzailea: Txankakua-Mintxeta
Atletismo Taldea

11,00•13,00 eta 15,00.18,00 TIRO
PITXON TXAPELKETA

,/ Albitxurin
Antolatzailea: La Union

12,00 INTSUMISIOARI BURUZKO
BILERA INFORMATIBOA

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Talde Antimiiitarista

19,30.22,15 ZINEA

"Dias contados"

21,00 ELGOIBARKO I. BOLO
TXAPELKETA

✓ San Lorentzoko bolatokian

17 IGANDEA

09,00 MORKAIKORA IRTEERA
JAIOTZA IPINTZERA

✓ Plaza handitik irteera
Antolatzailea: Morkaiko

12,30 MUSIKA BANDAREN
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Vuelve colmillo blanco"

19,30.22,15 ZINEA

"Dias contados"

51 ASTELEHENA

09,00 IRUDI BIZIAK ZINEA

OHoko haurrentzat
El jardin secreto"
✓ Herriko Antzokian

22,15 ZINEA

"Dias contados"

5 ASTEARTEA

17,00 IPUIN KONTALARIAK

IKA taldea
b/ Udal Liburutegian

22,15 ZINEA

"Viven"
(Ikuslearen eguna)

21 OSTEGUNA

19,30 MUSIKESKOLAKO
IKASLEEN ETA TXISTULARIEN
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

OSTIRALA

19,00 BARREN SARIEN
EKITALDIA

Tartean Amaia Zubirlaren
kantaldia
✓ Herriko Antzokian

22,15 ZINEA

"Volar por los aires"

JIMILATUEN ASILA ZAL&LIINI EILICHASI

16 OSTIRALA

18,00 Txokolatada

Duo Plaentxi, Roketxu magoa
eta Dakinta txiste
kontalariarekin.

17 LARUNBATA

16,00 Mahaiko jokuen finalak.

Sariak egongo dira
irabazleentzat
Jarraian, kina eta Gelatxorekin
dantzaldia.

18 IGANDEA

12,30 Meza, hildako jubilatuen
alde

Arratsaldean, dantzaldia
Gelatxorekin eta Ermuko *El
Rocio* taldearen dantzak.

txandak

FARMAZIAK:

17, larunbata: Bidasolo

18, igandea: Bidasolo

19, astelehena: Ormazabal

20, asteartea: Ormazabal

21, asteazkena: Ormazabal

22, osteguna: Ormazabal

23, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

18, igandea:

BOUTIQUE DEL PAN

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua


(943) 11 35 15 • t' ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

n'i**RNA
?!

Sartta Klara -22
7-74 26 32





GARATE

JANTZ1 DENDA



OSOVO

OINETAKOAK



*Laster
naiz zuekin!
Aukeratu
garaiz
zeuen opariak.*

POLO BERRIA



Besoak zabal zabalik

Hala da. Besoak zabalik gaude zure zain.

Zatoz Polo Berria ezagutzera.

Probatu eta zuk zeuk

ikusi ahal izango duzu

egia dela

berataz esan den guztia.

- Polo Berriak Volkswagenen esperientzia guztia batzen du.

- Kotxe aproposena gazteentzat...

al ... eta gazte sentitzen diren guztientzat.

- Hiru eta bost ateetako bertsioak dauzkagu.

III **Kontsumo ikaragarri baxua du.**



Autos Eibar, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 10 36 42 / 10 00 90 EIBAR